

05/07 AKTA

## 2007KO MAIATZAREN 19AN EGINDAKO BATZARRA

Mendexan, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta zazpiko maiatzaren hemeretziaren, goizeko hamabietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Luis M<sup>a</sup> Ocamica Gogenola alkate jauna buru dela.

### ***Bertaratuak:***

*Zinegotziak:* Juan Miguel Txakartegi Zendoia  
Martin Aranzamendi Gabiola  
Txomin San Martin Badiola  
Miguel Iturbe Sarasola  
Maria Magdalena Gabiola Arostegi  
Jose Manuel Laka Arrillaga  
*Idazkaria:* Miren Begoña Laka Ortuondo

### ***Bertaratu ez direnak:***

Bat ere ez

Alkate-udalburu jaunak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

**1.- OBRETARAKO LIZENTZIA EMAN, EGOKI BADA, L&O ARQUITECTURA Y SERVICIOS INMOBILIARIOS, S.L. ENPRESARI.-** Borja Arana arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera egiteko eta 48.454,92 euroko aurrekontuarekin, Mendexako Zelaia auzoko Zelaia II exekuzio unitatearen C2, C3 eta C4 partzeletan igerilekua eraikitzeko L&O Arquitectura y Servicios Inmobiliarios, S.L. enpresak eskatu duen obretarako lizentzia emateko espedientea ikusirik.

Ikusirik Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulari jaunak idatzitako txostenak.

Gaia aztertu ondoren, udalbatzak aho batez erabaki du:

L&O Arquitectura y Servicios Inmobiliarios, S.L. enpresari eskatutako lizentzia ematea, ondoren adierazten diren baldintzak betez:

1) Obrak udal honetan aurkeztutako eta espedientean agertzen den exekuzio proiektuari guztiz egokitu beharko dira, bigarren baldintzan ezarritako kontuan izanez.

Lizentziaren baldintzetatik kanpo gelditzen den edozein aldaketa urratse zigorgarria izango da eta dagokion legezkatze espedientea eskatu ahal izango zaio.

Lizentzia honetako edozein baldintza ez betetzea zigortua izan daiteke, bai isun bat jarriz bai obrak geldituz, Udalbatzak erabakitzen duenaren arabera.

2) Mendexako Udala uraren erabilerari buruzko ordenantza onartzekotan dabil. Beraz, igerilekuaren erabilera (betetzea, murrizketak,...) onartzen den ordenantzaren arabera izan beharko da, bere kasuan.

3) Obren exekuziorako obren zuzendaria izendatu beharko da eta udal idazkaritzan aurkeztu beharko da dagokion kontratuaren kopia.

4) Obrak hasi aurretik, tokiaren egiaztapen-agiria (replanteoko akta) egingo da, jabetzak idatziz eskatuko duelarik.

5) Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoak. Hau dela eta, segurtasun koordinatzailea izendatu beharko da eta kontratuaren kopia aurkeztu beharko da udal idazkaritzan.

6) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

7) Obrak bukatu eta gero, udalarekin berri eman beharko dute, udaleko zerbitzu teknikoek inspezioa egin dezaten; obretarako lizentzia emateagatik tasa eta eraikuntza, instalazio eta obren ziozko zergaren behin-betiko likidazioa egingo delarik. Eskaerarekin batera obren amaierako ziurtagiria eta obren likidazioaren laburpena aurkeztu beharko dira, obren zuzendaritzako teknikoei dagokien Elkargo Profesionalek bisaturik.

8) Lizentzia hau beste administrazio edo erakundeen eskuduntzen kalterik gabe, jabetzaren eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

**2.- OBREN LEGALIZAZIO LIZENTZIA ETA JARDUERA LIZENTZIA EMAN, EGOKI BADA, KARRASPIO 2003, S.L. ENPRESARI.-** Mendexako Liko auzoko Santa Luzia inguruan, obren legalizazio lizentzi eta jarduera lizentziak eskatu ditu Karraspio 2003, S.L. enpresak, Ignacio Albistegui Goenaga arkitekto teknikoaren legalizazio eta jarduera proiektua aurkeztuz.

Ikusirik Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulari jaunak idatzitako txostenak.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Karraspio 2003, S.L. enpresari eskatutako obren legalizazio lizentzia ematea, ondoren adierazten diren baldintzak betez:

a) Obrak udal honetan aurkeztutako eta espedientean agertzen den legalizazio proiektuari eta Mendexako Arau Subsidiarioetan ezarritakoei guztiz egokitu beharko dira.

Lizentziaren baldintzetatik kanpo gelditzen den edozein aldaketa urratse zigorgarria izango da eta dagokion legezkatze espedientea eskatu ahal izango zaio.

Lizentzia honetako edozein baldintza ez betetzea zigortua izan daiteke, bai isun bat jarri bai obrak geldituz, Udalbatzak erabakitzen duenaren arabera.

b) Obren exekuziorako obrako zuzendaria izendatu beharko da. Udal Idazkaritzan dagokien zerbitzu profesionalen errentamendu kontratuaren fotokopia aurkeztu beharko da.

c) Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoak.

d) Obrak bukatzeko epea sei hilebetekoa izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak

galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, epe horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

e) Obrak bukatuta daude jadanik, arkitektoaren txostenak egiaztatzen duenez, eta obren likidazioa ere aurkeztu da. Beraz, zergaren behin-betiko likidazioa orain egingo da.

f) Lizentzia hau beste administrazio edo erakundeen eskuduntzen kalterik gabe, jabeak eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

2) Karraspio 2003, S.L. enpresari jarduera ezartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintza bete beharko delarik:

Baimendutako erabilera edota jarduera bakarra, Mendexako Arau Subsidiarioetan ezarritako Ag-2-1 (Baso instalakuntzen erabilera) ren barneko I-1 Artisan industria izango da.

Ezin izango da instalakuntzetan edota terrenoan bestelako jarduerarik izan, lehenago ez bada eskatu eta lortzen udal baimenik, egiaztatutakoan dagokion jarduera hirigintz arauekin bat datorrela.

**3.- OBRETARAKO LIZENTZIA EMAN, EGOKI BADA, DEUSTO 20, S.L. ENPRESARI.-** Idoia Legarreta arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera egiteko eta 50.538,79 euroko aurrekontuarekin, Mendexako Leagi auzoko Leagi Torrearen estalpea (teilatua) eraberritzeko Deusto 20, S.L. enpresak eskatu duen obretarako lizentzia emateko espedientea ikusirik.

Ikusirik Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulari jaunak idatzitako txostena.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzako ahobatez erabaki du:

Deusto 20, S.L. enpresari eskatutako lizentzia ematea, ondoren adierazten diren baldintzak betez:

1) Obrak udal honetan aurkeztutako eta espedientean agertzen den exekuzio proiektuari guztiz egokitu beharko dira.

Lizentziaren baldintzetatik kanpo gelditzen den edozein aldaketa urratse zigorgarria izango da eta dagokion legezkatze espedientea eskatu ahal izango zaio.

Lizentzia honetako edozein baldintza ez betetzea zigortua izan daiteke, bai isun bat jarriz bai obrak geldituz, Udaltzako erabakitzen duenaren arabera.

2) Obren exekuziorako goi mailako arkitektoaren zerbitzuen kontratazioa exijitzen da. Udal Idazkaritzan dagokion zerbitzu profesionalen errentamendu kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.

3) Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoak. Hau dela eta, segurtasun koordinatzailea izendatu beharko da eta kontratuaren kopia aurkeztu beharko da udal idazkaritzan.

4) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinerazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

5) Obrak bukatu eta gero, Udaletxean berri eman beharko dute, udaleko zerbitzu teknikoek inspektzioa egin dezaten; obretarako lizentzia emategatiko tasa eta eraikuntz,

instalazio eta obren ziozko zergaren behin-betiko likidazioa egingo delarik. Eskaerarekin batera obren amaierako ziurtagiria eta obren likidazioaren laburpena aurkeztu beharko dira, obren zuzendaritzako teknikoei dagokien Elkargo Profesionalek bisaturik.

6) Lizentzia hau beste administrazio edo erakundeen eskuduntzen kalterik gabe, jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

**4.- SUSPENDITUTAKO OBREI BURUZKO ERABAKIA.-** 2007ko otsailaren 22ko akordio bitartez, Udaltzarak Zelaia auzoko Jose Vidal jaunaren jabetzako terrenoan, txabola eraikitzeke egiten zeuden obren suspentsioa erabaki zuen, udal lizentziarik ez delarik eskatu ezta lortu.

Luzeki igaro da interesdunari emandako hile biko epea, dagokion lizentzia eskatzeko eta epe horretan ez da inolako eskaera zein galdaketarik aurkeztu.

Ondorioz, eta hirigintz legerian eta 30/1992 Legean ezarritakoak kontuan izanik, Udaltzarak aho batez erabaki du:

1) Zelaia auzoan, Jose Vidal Urrea jaunaren jabetzako den terrenoan, txabola eraikitzeke obren ERAISPENA agintzea, HILE BIKO epean, deskonplimendua baino lehenagoko egoeran utziz kaltetutako ondasunak.

Eraispena interesdunen konturakoa izango da eta sortu dituen erabilerak behin-betirako galeraziko dira.

Eraispen agindu hau ez balitz beteko, exekuzio subsidiarioa erabiliko litzateke.

2) Interesdunei luzatu ezineko hamar eguneko epea ematea, egoki deritzon alegazioak jar ditzan.

3) Udaltzaren akordio hau Jose Vidal Urrea jaunari jakinaraztea, legez kanpoko obrak egin diren lursaileko jabea baita.

**5.- OBREN SUSPENTSIOA ERABAKITZEA.-** Julen Astoreka jauna, Iturreta auzoko 3. poligonoko 80. partzelan bere jabetzako terrenoan, obrak egiten ari da, txabola eraikitzeke obrak hain zuzen. Zehazki, erdialdean itxitako txabola eta buelta guztian 2 metro inguruko aterpea poste gainean, guztiz, 30 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin.

Egindako obrak ondorengoak dira: Mendexakua baserriko kortako kanpoaldetik eskilara bat egitea.

Lekuan ikusketa egin ondoren, udal arkitekto aholkulariak emandako txostena ikusirik.

Ikusirik aipatu instalakuntza eta obrak 2005eko abuztuaren 30eko datarekin emandako udal lizentziako baldintzetatik kanpo egin direla.

Kontuan harturik indarreango hirigintz legerian eta 30/1992 Legean ezarritakoak.

Udaltzarak aho batez erabaki du:

1) Julen Astoreka jaunaren jabetzako den terrenoan, txabola modukorako egiten ari diren obra, instalakuntza eta erabilerak **SUSPENDITZEA**, behin-behineko neurri bezala.

2) Interesdunei agintzea akordio honen jakinerazpena hartzen denetik zenbatu beharreko BI HILABETEKO epean, egindako obra, instalakuntza eta erabileretarako

udal baimena eskatu dezala, oharteraziz derrigorrezkoa den lizentzia emandako epean ez bada eskatzen edo indarreango legeriarekin desadostasunagaitik ezin bada lizentzia eman, sortu dituen erabilerak behin-betirako galeraziko direla, eta deskonplimendua baino lehenagoko egoeran uztea kaltetutako ondasunak aginduko dela, beharrezkoa bada exekuzio subsidiarioa erabiliz.

3) Udalbatzaren akordio hau interesdunei jakinaraztea.

**6.- TXABOLA BAT ERAIKITZEKO OBRETARAKO LIZENTZIA EMATEA, EGOKI BADA.-** Miguel Iturbe Sarasola jaunak, Lea-Goikoa baserriaren terrenoetan, ardiak gordetzeko txabola baten eraikitze obrak egiteko aurkeztu duen ahozko eskaeraren aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Eskatutako obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

1) Egin nahi den txabola material ez iraunkorrekin egin behar izango da (panelak,...) eta ezin izango du instalazio fijoak izan (hormigoizko plataformarik eta bestelako instalazio iraunkorrik).

2) Baimen hau prekarioan ematen da, eta behin-behineko izaerarekin, eta aipatutako txabola nekazal-abelzantza jardueretarako soilik erabili ahal izango da. Udalak, interes publikoko arrazoiengaitik, egokia deritzon edozein momentutan bere suntsipena agindu dezake, indemnizaziorako eskubiderik gabe.

3) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinerazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

4) Lizentzia hau jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

**7.- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAN MENDEXAKO UDALA SARTZEKO PROPOSAMEN AGIRIA.-** Mendexako Udalak 2005ko ekainaren 9ko akordio bitartez, formalki eskatu zuen Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzea.

Horren ondorioz, aipatu partzuergoak agiria aurkeztu du Mendexako udalerrira partzuergoan sartzeko baldintza teknikoak zehaztuz.

Aurkeztutako agiri teknikoak sakonki aztertuz gero, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Mendexako udalerrira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko erabakia berrestea, ondorengo baldintzetan:

- Edateko ur hornidura sarean, lehenengo eta bigarren mailako sareak hartzea Ur Partzuergoak. 2. mailako sarea (secundaria) hartzeko beharrezko litzateken inbertsioak zehaztu behar dira eta baita ere finantzaketa noren konturakoa izango den.

- Saneamendu sarean, lehenengo mailako sarea bakarrik hartzen duenez Partzuergoak, sare primario bezala hartu beharko litzateke Quincoceseko ponpaketa (martxan dagoena) eta Endai eta Agarreko ponpaketa (egin gabe).

- Uren toma berezien (igerilekuak, ortuak,...) ur hartzei buruzko arauak aztertzea.

## **8.- 2007. URTEKO EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUA ONARTZEA.-**

Alkate-udalburu jaunak 2007. urterako Udal Aurrekontuaren egitasmoaren, Aurrekontu Beterazpenari buruzko Udal Arauaren eta Plantila Organikoaren berri eman du. Era berean, jakinarazi du aurrekontua idazterakoan legezko beharkizunak bete direla. Eta aurrekontua agertzen denarekin udalaren garapenerako eta mantenimendurako beharrianak betetzen direla, baita legeak ezartzen dituen gutxienezko beharrianak eta betekizunak ere.

Azkenik, adierazi zuen, indarreango araudiak ezartzen duenaren arabera, erabaki hau behin-behinekoa dela. Aurrekontuari buruzko iragarkia jendaurrean egongo den epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, legez erabaki hau behin-betikotzat joko da.

Udalbatzak, 2007. urterako proposatutako Udal Aurrekontua, bere beterazpenari buruzko Udal Araua eta 2007ko Plantila Organikoa aho batez onartzea erabaki zuen.

Kapituluz laburturik, honela da:

### SARRERAK

1. Zuzeneko zergak.....	44.400,00 €
2. Zeharkako zergak .....	61.000,00 €
3. Tasak eta beste sarrerak.....	66.500,00 €
4. Transferentzia arruntak.....	499.000,00 €
5. Ondasunezko sarrerak .....	1.300,00 €
7. Kapital transferentziak.....	234.400,00 €
8. Finantza aktiboak.....	0,00 €
9. Finantza pasiboak .....	100,00 €

*SARRERAK GUZTIRA* ..... 906.700,00 €.

### GASTUAK

1. Pertsonalaren ordainsariak.....	164.100,00 €
2. Ondasun eta zerbitzu erosketa .....	227.500,00 €
3. Finantz gastuak .....	9.000,00 €
4. Transferentzia arruntak.....	167.700,00 €
6. Inbertsio errealak .....	323.400,00 €
7. Kapital transferentziak.....	100,00 €
9. Finantza pasiboak .....	14.900,00 €

*GASTUAK GUZTIRA* ..... 906.700,00 €.

Erabaki honi buruzko iragarkia BAOn eta ohiko tokietan hamabost egunez jarriko da, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Idazkari-kontuhartzaileak edo gordailuzainak, Udalbatzari aurkeztutako erreklamazioen berri emango diote, bakoitzat bere eskumenari dagokionean; edo bere kasuan ezezko ziurtagiria.

**9.- EZABAPENA GATIKO BAJAK.-** Idazkari-Kontuhartzaileak, 2006ko Udal Aurrekontuaren Likidazioan eta aurrekoetan kobratzeko gelditu ziren zenbait diru-kopuruen berri eman du. Egiartzatu da diru-kopuru hoiei ez dagozkiela zor edo beharkizun errealik, anulatu beharreko ibilgailu zergari edota ur, zaborbiltze eta estolderi tasei dagozkien erreziboak baitira.

Hori dela eta, alkate jaunak, idazkari-kontuhartzaileak 2007-05-10eko datarekin emandako txostenean zerrendatutako kopuruei ezabapenagatik baja ematea proposatu du, 2007ko Udal Aurrekontuaren Likidazioan ez daitezen jadanik horrela agertu.

Aurrekoa ikusi ondoren, udalbatzak aho batez erabaki du:

Itxitako udal aurrekontuetatik datozen diru-kopuruei baja ematea, aipatutako arrazoiengaitik:

Kobratzekoak. Bajak..... 3.578,69 €

Ordaintzekoak. Bajak..... 0,07 €

**10.- MENDEXAKO GAS SAREKO OBREN LAUGARREN LAN-EGIAZTAGIRIA, EGOKI BADA, ONARTZEA.-** Itxasgas, S.L. enpresak emandako Mendexako gas sareko obrei dagozkien laugarren lan-egiaztagiria aurkeztu du idazkariak. Zenbatekoa 95.237,00 eurokoa da.

Udalbatzak aho batez erabaki du:

Mendexako gas sareko obren laugarren lan-egiaztagiria onartzea. Bere zenbatekoa LAUROGEITA HAMABOST MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI (95.237,00 €) eurokoa delarik.

**11.- GAS SAREKO OBRAK JARRAITZEKO AURREKONTUAK.-** Alkate jaunak azaldu du Mendexako gas sareko obren kontratista den Itxasgas, S.A. enpresak aurrekontu bi aurkeztu dituela obrak jarraitzeko, udalak hala eskatuta, kontuan izanik oraindik dirulaguntza jaso daitekela Erein programatik.

Alde batetik, Iturraspe eta Agarreko etxebizitzetako deposituak jartzeko aurrekontua aurkeztu da, 12.696,00 eurokoa.

Bestetik, Leagi auzora sarea anpliatzeko aurrekontua, 85.064,83 €eurokoa.

Gaia sakonki aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Agarre eta Iturraspeko etxebizitzetako gasa emateko aurrekontua onartzea, 12.696,00 €eurokoa.

2) Leagi auzora sarea anpliatzeko aurrekontuari buruz, hurrengo Gorporazioaren eskuetan utzi da erabakia.

**12.- KARRASPIORAKO UDAKO AUTOBUSA.-** Lekeitioko Udalak, azken urteetan modura, aurten ere Karraspiorako udako autobusa martxan jartzeko, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, udal baimena eskatu du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak ahobatez erabaki du:

Lekeitioko Udalarari baimena ematea Karraspioko hondartzarako udako autobus zerbitzua martxan jartzeko.

Beti ere, hondartzako erabiltzaileei eta herritarrei ahal den eta eragozpenik gutxien sortzeko ahalegin berezia egin beharko da. Hondartzainek eta Mendexako Udaleko beste ordezkariak emandako aginduak bete beharko ditu zerbitzuko arduradunak, hondartzako kudeaketa hobetzeko direnean.

**13.- KARRASPIO HONDARTZAN BIZKAIKO KIROL TOPAKETAK EGITEKO BAIMEN ESKAERA.-** Lekeitioko Eskolako eskolaz kanpoko ekintzen irakasle arduradunak eskaera aurkeztu du, datorren ekainaren 5ean Karraspio hondartzan Bizkaiko Kirol Topaketak antolatzeko.

Honen aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lekeitioko Eskolari baimena ematea 2007ko ekainaren 5ean Karraspioko hondartzan Bizkaiko Kirol Topaketak egiteko. Ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ospakizuna dela eta gerta daitezken kalteen erantzuleak antolatzaileek izango dira. Bere esku egongo da, ere, antolakuntza guztia.
- Antolakuntzarako beharrezko diren baimen guztiak eskatu beharko dituzte antolatzaileek, bereziki segurtasunari dagozkionak.
- Argitaratzen diren kartel, folleto, seinale, e.a. guztietan argi agertu beharko da Karraspioko hondartza Mendexa dela eta euskararen presentzia bermatu beharko da.

**14.- MENDEXAKO BIDEEN EGOKITZEA. 2007KO KANPAINA” OBREN KUDEAKETA “LEARRI, S.A.” MERKATARITZA-ENPRESAREN ESKU UZTEKO PROPOSAMENA.-** “Mendexako bideen egokitzea. 2006ko kanpaina” proiektua exekutatzeko bideratutako administrazio-espeditentean ageri diren datuak kontuan izan dira, eta ondokoa ere OINARRITZAT HARTU DA:

*Lehenengoa: Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15 artikulua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeko aldarazpenak aintzat hartuta, ondokoa ezarri zuen:*

1. *Zuzenbide publikoko erakunde edo administrazio-organoen eskumeneko jarduerak, zehazkiago esateko, arlo material, tekniko edo zerbitzu arloko jarduerak, burutzeko ardura Administrazio bereko edo beste Administrazio bateko organo edo erakundeen esku utz daiteke, eraginkortasun arrazoiak direla-eta, edo jarduera horiek burutzeko bitarteko tekniko egokirik ez badago.*
2. *Kudeaketa norbaiten esku uzteak ez du esan nahi eskumenaren edo eskumena burutzeko funtsezko elementuen titulartasuna lagatzen denik, eta kudeaketa besteren esku uzteko proposamena egiten duen organo edo erakundearen ardura da besteren esku utzitako jarduera material zehatza osatzen duen edo jarduera horren euskarri den egintza edo ebazpen juridiko oro burutu edo ematea.*
3. *Administrazio bereko zuzenbide publikoko administrazio-organo edo erakundeen arteko kudeaketa norbaiten esku uztea bertako araudiak ezarri bezala formalizatu beharko da eta, araudirik ez balego, parte hartzen duten organo edo erakundeen berariazko erabakiaren bidez. Edonola ere, kudeaketa norbaiten esku uzteko proposamena formalizatze bitartekoa eta*



*ebazpena bidezko egunkari ofizialean argitaratu behar dira, eraginkorrak izan daitezten.*

*Administrazio bakoitzak beharrezko betekizunak arautu ahal izango ditu akordio horiek baliozkoak izan daitezten. Akordio horiek, gutxienez, honako hauek aipatu behar dituzte berariaz: eragina jasango du(t)en jarduera(k), indarraldia eta norbaiten esku utzitako kudeaketaren izaera eta irismena.*

- 4. Kudeaketa hori norbaiten esku uztea Administrazio desberdinetako organo eta erakundeen artean egiten bada, bidezko hitzarmena sinatuko da organo eta erakunde horien artean, Autonomia Erkidegoetako zerbitzuak, modu arruntean, probintziako Diputazioek, edo bidezkoa bada, uharteko Kabildo edo Kontseiluek kudeatzen badituzte salbu; izan ere, kasu horretan Toki Araubideko legediari heldu behar zaio.*
- 5. Artikulu honetan araupetzen den kudeaketa norbaiten esku uzteko artikulu honetan araubide juridikoa ez da aplikatuko lehenengo atalean adierazitako jarduerak zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek burutu behar badituzte. Izan ere, kasu horretan kontratuei buruzko Estatuko legediari heldu behar zaio, bidezkoa denean, eta indarrean dagoen legediaren arabera, administrazio-zuzenbideari jarraiki egin behar diren jarduerak ezin dira izaera horretako pertsona edo erakundeen esku utzi.*

*Bigarrena.- “LEARRI, S.A.” enpresa bideratzailea da eta bere gizarte-jarduerak burutu beharreko obrak barne hartzen ditu. Enpresaren kapital sozial guztia toki-erakundeena da, Udal honena, besteak beste, Udala “LEARRI, S.A.” sozietateko bazkidea da eta. Horrela bada, kontratazioari dagokionez, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua aplikatzen zaio; hori dela eta, kasu honetan funtsezko baldintzak eta baldintza organikoak betetzen dira LEARRI, S.A. sozietateak goiburukoan adierazitako obren burutzapenean organo kudeatzaile gisa jardun dezan.*

Ondorioz, aurreko arauak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen Legea, orokorrean eta berariaz aplikatu beharreko gainerako arauak, bai eta gai honi dagokionez egindako txostenak aztertu ondoren, Udalaren osoko bilkurak, gaia eztabaidatu eta gero, aho batez, ondokoa ERABAKI DU:

- 1) LEARRI, S.A. merkataritza-enpresari emango zaio **“Mendexako bideen egokitzea. 2007ko kanpaina”** obrak kudeatzeko ardura.
- 2) Aipaturiko obrak dagokion proiektuaren arabera egingo dira, hain zuzen ere ondoko baldintza betez:
  - 1- Obrak 2007ko azaroaren 30erako bukatuta eta zertifikatuta egon behar dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso ahal izateko.
  - 2.- Egin beharreko obren gehiengo aurrekontua: 42.857,00 €
- 3) Alkate jaunari eskumena emango zaio, erabaki hau betetzeko egintza edo izapideak egin eta, bidezkoa bada, akatsak zuzen ditzan.
- 4) Erabaki honen berri emango zaio LEARRI, S.A. enpresari.

**15.- BAKE-EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.-** Euskal Autonomi Elkarteko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak igorritako idatzian eskatzen zion Udalbatzari proposatu zitzala Bake-Epaile titular eta ordezkoa.

Udaleko iragarki-oholean jarritako iragarki bitartez Bake-Epaile postua betetzeko interesdunek bere eskaerak aurkezteko epea zabaldu zen eta eskaera bi aurkeztu ziren.

Geroztik, interesdun batek agertu du jadanik ez daukala interesik kargua betetzeko.

Honen aurrean, egin dira gestioak herritarren artean baten bat prest egongo litzateken jakiteko Bake-Epaile ordezeko postua betetzeko eta aurkitu da pertsona bat.

Guzti hauek kontutan izanik, Udalbatzak, Gorporaziokideen gehiengo osoaz eta etorritakoek ahobatez, erabaki du:

1) Bake-Epaile titular eta ordezeko karguetarako ondoren aipatzen diren pertsonak proposatzea:

- *Bake-Epaile titularra*, JUAN MIGUEL TXAKARTEGI ZENDOIA jauna, N.A.N. 72.168.726-Q, 1951-08-23an jaioa, pentsionista, bizilekua Mendexan, Leagi auzoa 14, Etxeburu etxea.
- *Bake-Epaile ordezkoa*, ANGEL JOSE ITURRASPE OCAMICA jauna, N.A.N. 78.862.171-R, 1962-01-09an jaioa, lanbidez garbitzailea, bizilekua Mendexan, Leagi auzoa 7, Antxerri etxea.

2) Jaso araztea aipatutako lanpostuak betetzeko proposatutakoek bere onarpen zehatza eman dutela eta Botere Judizialeko Lege Organikoko 102, 302, 303 eta 389 artikuluek kargu judizialeko aurrikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausarik ez dutela aitortu dutela.

3) Akordio honen ziurtagiria bidaltzea Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Presidente jaunari.

**16.- MENDEXAKO UDALETXEA ERABERRITZEKO OBREN BEDERATZIGARREN LAN-EGIAZTAGIRIA, EGOKI BADA, ONARTZEA.-** Learri, S.A. enpresak emandako Mendexako udaletxea eraberritzeko obrei dagozkien bederatzigarren lan-egiaztagiriaren berri eman da, bere zenbatekoa 53.473,47 eurokoa delarik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Mendexako udaletxea eraberritzeko obren bederatzigarren lan-egiaztagiria onartzea, bere zenbatekoa BERROGEITA HAMAHIRU MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (53.473,47 €) eurokoa delarik.

**17.- UDALBIDE ELKARTEARI DIRU LAGUNTZA EMATEA.-** Udalbide Elkarlan Elkarteari dirulaguntza emateko proposamenaren berri ematen da; delako elkartearen xede nagusiak dira euskara babestu, garatu eta sustatzeko elkartasun fondoa eratzea eta euskal lurralde guztietako udal eta herritarren arteko harremana bultzatzea; hartara, helburua du ekimenak sustatzea hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde

antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, baita udalerriek eskumenak esleituak dituzten gainerako gaietan ere.

Egiaztatu da kreditu egokia eta behar adina dagoela, dirulaguntza emateak berarekin dakartzan betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko.

Udal honetako aurrekontuen betearazpen oinarrietan Udalbide Elkarlan Elkartearen alde dirulaguntza emateko aurreikuspena ezarri da, izen eta guzti ezarri ere, eta egiaztatu da elkartearen xedeak bat datoze udal eskumenekin, eta horrek frogatzen du bete egiten dela interes publiko eta sozialarekin bat etortzeko baldintza, huraxe baitute xede bai udalerrri honek bai aipatu elkarreak.

Ikusirik indarra duten arauen artean aplikatu beharrekoak, bereziki Udalbide Elkarlan Elkartearen Estatutuak eta haren sarrera Bazkunen Erroldan, eta orobat ikusirik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Toki Erakundeen Zerbitzu Arautegia.

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Udalbide Elkarlan Elkarteari MILA ETA BOSTEHUN (1.500,00 €) euroko dirulaguntza ematea, 2007ko ekitaldirako jarduketaren programan aurreikusita dauden jarduerak finantzatzeko, indarra duen antolamendu juridikoarekin eta udal eskumenarekin bat baitatzen jardueraren horiek.

2) Ebazpen hau jakinaraztea bai Udalbide Elkarlan Elkarteari bai udalaren diruen kontuhartzaileari.

3) Udalbide Elkarlan Elkarteari onetsitako zenbatekoa ordaintzea, dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat aldeztu aurretik sinatuta.

**18.- DIRULAGUNTZA ESKAERAK.-** Idazkariak, heldutako dirulaguntza eta udal aportazio eskaeren berri eman du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera guztiak helburu interesgarriak eta txalogarriak dituztela onartu arren, Udalak errekurtsio mugatuak dituen ezinezkoa da denei laguntza ematea.

2) Ondorengo udal aportazioak eta dirulaguntzak onartzea:

- Mendexako Dantza Taldeari, 1.100,00 €
- Kainabera Elkartasun eta Kooperazio Elkarteari 150,00 €
- Mendexako Jai Batzordeari, Txatori omenaldia antolatzeke, 600,00 €
- Isuntza Arraun Elkarteari, urteroko 200,00 € bazkide bezala.

**19.- GASTUAK.-** Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, beharbada onartzeko:

- El Correoren faktura, 282,85 €
- Wurthen fakturak, 23,20 € 315,68 € eta 45,82 €
- Juan Miguel Txakartegiri, 270,00 €
- Erralde Durangoko Hiltegia, S.L.ren faktura, 2.312,88 €
- Alaitz Uskolari, 159,65 €
- Miren Arrillagari, 420,00 €
- Eskoopen faktura, 2.738,50 €
- Xuri Burdindegaren faktura, 193,98 €

- Bilbo Herri Irratiaren faktura, 174,00 €
- Martin Aranzamendiri, 97,57 €
- Luis M<sup>a</sup> Okamikari, 282,75 €

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu jaunak bilera amaitutzat eman du eguerdiko ordu biak eta laurdenak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.